



XURDINEKIN DANTZAN ETA KANTUAN

'Xurdinen kontzertua' antzerki musikala izango da bihar ikusgai, 18:00etan, Berrobiko pilotalekuan 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO


hitza



Larunbata
2008-02-23

VIURTEA 1.369.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO




Aranburu Jauregian ikusgai dauden eskulturetako bat. EZEIZA

TOMAS HERNANDEZEN LANAK ARANBURUN 5

10 urte egin ditu Abel Barriolak profesionaletan


LEITZA «Pilotak asko eman dit eta asko ikasi dut berarekin urte hauetan», azaldu du pilotariak 7



Antzezlano uune bat. HITZA

'Txitxarra ta iñurria' antzezlana, Gurean

VILLABONA Markeliñe antzerki taldearen hurrei eta familiei zuzenduriko lana gaur izango da 2



ARBE HOTELA

943 604749

MUTRIKU



Irekitzera doa

www.hotelarbe.com



Antzezlaneko protagonistak txixar bat eta bi inurri dira. HITZA

'Txixarra ta inurria' alegia, beste ikuspuntu batekin

Villabona » Markeliñe antzerki taldeak haurrei eta familiei zuzendutako obra antzeztuko du gaur, 17:00etan, Gurea aretoan.

ERREDAKZIOA

Markeliñe taldeak haurrei eta familiei zuzendutako *Txixarra ta inurria* antzezlana emango du gaur, 17:00etan, Gurea aretoan. Izen bereko alegia ezagunean oinarrituta idatzitako antzerki taldeak berak gidatzen du antzerki taldeak jorrituz. Antzezleak Itziar Fragua, Ana Martínez eta Fernando Barado dira. Lehenengo biak inurriak antzeztuko dituzte eta hirugarrena txixarrarena egingo du.

«Antzezlanean kontatzen den istorioa Esopok jadanik aurreko bertsiotz batean idatzitako zuen, La Fontaine edo Samaniegok euren alegietan idatzitako bera. Testu ho-



Bi inurriak antzezlanean une batean. HITZA

riek abiapuntu hartuta, baina, obra sortzerakoan Markeliñe taldeari «zerbaitek erakarri eta liluratzeko» zion. Ikuspuntu klasikoak, ipuinaren irakaspena, Esopok eman zuten, hots, «ezer ez dugunerako

gorde behar dugu». Txixarrari, ordea, garrantzi aktiboa emanez gero artista bihurtu daiteke, hau da, guztientzat jotzen duela, ibiltariak gozatzeko, inurria barne. «Hona hemen alegiaren bestelako ikuspegia», azaltzen du antzerki taldeak. «Gure asmoa ikuspuntu ezberdina duten galderak planteatzea da, hots, edozein tokitako pertsonaiekin liluratzeko, baina horiek hurbilak eta ezagunak izatea nahi dugu. Izan ere, gure gizartearen ditugun arketipoak dira».

Otsailak
23
larunbata
20:30

Biarritz baleta Jr. 3

Gari beltza

TOLOSA

Capriccio BARRUTIA
943 65 13 00
www.buzka.net

11 00 00

ARAMBURU

Salgai (Tolosa), Etxebizitza, Bidebieta auzoan, guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa), Etxebizitza, garajearekin, Trinke auzoan.
Salgai (Tolosa), Etxebizitza, Kale Nagusian, igogailuarekin.
Salgai (Tolosa), Etxebizitza, Kale Nagusian, eraberritako.
Salgai (Tolosa), Garajeak, San Frantzisko eta Leidor azpian.
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokale, tximiniarekin, erdigunean.
Salgai edo Alokatzeko (Amezketan). Etxebizitza.
Alokatzeko (Tolosa). San Frantzisko, lurre eta Araba etorbidean.
Alokatzeko (Ibarra). Pabiloi industriala, Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16



Azken txapelketan parte hartu zuten Danena-Olaederra taldekoak. HITZA

Denboraldi berria hasi du halterofilia taldeak

Villabona-Zizurkil

Danena-Olaederra taldeak Klubaren arteko III. Federazioen Kopan parte hartu berri du.

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra halterofilia taldeak aurtengo denboraldiari hasiera eman berri dio Madrilen egindako Klubaren arteko III. Federazioen Koparekin, 16 urte azpiko eta 18 urte azpiko mailetan.

Eskualdeko pultsulariek bosgarren amaitu zuten 16 urte azpiko mailan. Iker Hernandez, Jokin Urkizu eta Adrian Sasiainez gain, Galdakaoko Aritz Eriz, Jose Francisco Bervia eta Iraiz Molina aritu ziren. 18 urte azpiko mailan hiru-

garren postuan amaitu zuten eskualdekoek. Igor Sasiain eta Mikel Quintanarekin batera, Galdakaoko Alexander Domingo eta Jon Hernandez aritu ziren.

Txapelketa honetan parte hartu ahal izateko, klubek Espainako Ligaren lehenengo 5 taldeen artean sailkatu behar izaten dute 15 urte azpiko eta 17 urte azpiko mailetan. Gazteen mailan 3. postuan gelditu ziren eta bestean 2. postuan. Bajarantz izan zituzte eta ordezkoekin moldatu behar izan zuten. Hauek egindako lana nabarmendu dute Danena-Olaederrakoek.

Gasteizen egingo den Euskadiko Teknika Eskolarren txapelketan izango dute hurrengo lehiaketa. Martxoaren 1ean Madrilen egingo den Espainiako Txapelketa aurreko fasea izango da.

Z Zurea da hitza info

Pasaiara irteera



Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleak itsasontzi batean izan ziren. HITZA

JESUSEN BIHOTZAKO IKASLEAK

Jesuse Bihotza Ikastolako ikasleak gara eta pasa den otsailaren 15ean egindako irteeraren berri eman nahi dizuegu. Ostiralean Pasaiako Nautika eta Arrantza Eskolako Planetariora joan ginen goizez.

Bazkal ostean Pasai San Pedroko portuan dagoen Mater itsasontzia bisitatu genuen eta bertan jolas nahiz taller desberdinak egin genituen. Baleen arrantza eta na-

bigatzaile desberdinei buruzko informazio pila eman ziguten Izaskun kapitainak baita Xabi eta Sonia marinekin ere.

Hau dena gutxi balitz, itsasontzia goitik behera miazteko aukera izan genuen: sukualdea, kontrol gela, sotoa, logelak... Primeran pasa genuen denok, eguraldi ezin hobea izan genuen eta gauza asko ikasi genituen. Animatu eta ahal duzuenean joan zaitetzte Pasaiako herria bisitatzera, merezi du eta!

Igande gaueko saioa eta bonuak, zinemaren berrikuntzak

Tolosa » Denera 12 saio izango dira martxoko lehen hamabostaldian, 3 haurrentzat eta 9 heldu eta gazteentzat.


ERREDAKZIOA

Abenduko zine-festaren «arrakastaren» ondoren, Kultur Departamentuak zine egitaraua zabaltzearen aldeko apustua egin du. Hala, Tolosako Zine Klub taldeak proposatuta pelikula ugari ikusteko aukera izango da martxoaren lehenengo hamabostaldian; guztira gazte eta helduentzako 9 film eta haurrentzako 3 izango dira 3 aste-burutan, 24 saio denera.

Berrikuntzak ere badira. Horie-

tako bat da igande gauean ere zine saioa izango dela, 22:00etan, hain zuzen ere. Beste berrikuntza bonuena izango da. Hauen iraupena otsailaren 29tik martxoaren 17ra bitartekoa izango da, eta hiru eratakoak eongo dira aukeran: gaueko edozein saio ikusteko (guztira 9 film), ikuslearen eguna barne, 5 euro ordaindu beharko da; arratsaldeko edozein saio ikusteko (guztira 8 film) 5 euro balioko du; eta edozein saio ikusteko (guztira 9 film) 8 euro ordaindu beharko da. Momentuz, haurrentzako saioak ez dira bonuetan sartzen.

Bonuak salgai eongo dira datorren ostegun eta ostiralean, Leidor aretoko leihatilan, goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeaz 18:00etatik 21:00etara. Gainera,



Caramel filmaren jatorrizko bertsiorean estreinaldia izango da Tolosan. HITZA

Gazteria Departamentuak bonu batzuk izango ditu Gazte Topagunean.

12 film aukeran Leidorren

Haurrei zuzendutako 3 film izango dira ikusgai. Lehena *Mimzy mas alla de la imaginacion* izango da, martxoaren 2an. Bigarrena,

Nocturna izango da, martxoaren 9an, eta hirugarrena *Mr. Margarium y la tienda magica*, martxoaren 16an. Hiru saioak 17:00etan izango dira.

Gazte helduentzako filmak ondorengoak izango dira: otsailaren 29an eta martxoaren 1ean, Judd Apatow zuzendariaren *Lio Emba-*

razoso izango da ikusgai; martxoaren 1ean eta 2an Sam Garbarskiren *Irina Palm* izango da, martxoaren 1ean, 2an eta 3an, Mikel Newell-en *El amor en tiempos de colera*.

Hurrengo astean, hau da, martxoaren 8an, Nadine Labaki zuzendariaren *Caramel* (jatorrizko bertsiorean estreinaldia) izango da ikusgai. Martxoaren 9an eta 10ean Lucia Puenzoren *XXY* filma izango da.

Azkenik, martxoko hirugarren asteburuan film hauek ikusteko aukera izango da Leidor aretoan: martxoaren 15ean, 16an eta 17an Joe Wright zuzendariaren *Explicacion* filma izango da, eta martxoaren 15ean eta 16an Shane Meadows zuzendariaren *This is England* filma emango dute.

Zine forum saioak

Federico Fellini zuzendariaren *Giulietta de los espíritus* filma izango da ikusgai martxoaren 6an ikusgai. Hurrengo astean, hau da, martxoaren 13an, Pascale Ferran zuzendariaren *Lady Chatterley* filma emango dute. Zine forum saioak ohiko moduan ostegunetan izango dira, eta bi saio izango dira, 19:00etan lehena, eta 21:45ean bigarrena.

Laburrak

Trintxerpen lehiatuko dira bihar TAKEko arraunlariak

ARRAUNA » Tolosaldea Arraun Klubeko taldekideek bihar izango dute Gipuzkoako Batel Ligaxkaren hirugarren jardunaldia. Trintxerpen izango da, 11:00etatik aurrera, eta klubeko arduradunek azladu bezala, bertan ikusiko da taldeak zein mailatan aurkitzen diren.

Bere programaren berri eman du PPK

TOLOSA » Martxoaren 9an izango dira Espainiako Hauteskundeak, eta atzo ekin zieten aurkeztuko diren alderdiek kanpainari. Hala, atzo goizean, Jose Eugenio Azpiroz Espainiako Kongresurako Gipuzkoako PPren hautagaia, Maria Jose Usandizaga PPren Gipuzkoako lehendakaria, eta alderdiko beste hainbat kide izan ziren Tolosan. «Menpekotasun Legean finantziario nahikoa izatea nahi dugu, Gizarte Ongizatearen Ministerioaren sorrera bultzatuko dugu, eta familiari babesa emango dion lege integrala sortuko dugu», azaldu zuten, besteak beste.

Portugalera bidaiaria antolatuko du Iturriza elkarteak

TOLOSA » Iturriza jubilatutako elkarteak (Euskal Herria plaza) Portugalera eta Fatimara bidaiaria antolatuko du apirilaren 14etik 19era. Izen-ematea, elkartearen bertan egin ahalko dute bidaiaria parte hartu nahi dutenek.

Sahararrei babesa adierazteko euren bandera jarriko dute

Tolosa » 32 urte beteko dira hilaren 27an Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutenetik.

ERREDAKZIOA

Datorren asteazkenan, hilaren 27an, Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuteneko 32. urteurrena beteko

da, eta hori dela eta, «herri horri elkartasuna adierazteko», Mendebaldeko Saharako bandera jarriko dute Tolosako udaletxeko balakoian.

30 urtetik gora dira sahararrek euren herririk bidali zituztela, eta geroztik, errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira Tinduf aldeko basamortuan. Erbesteari dirapairatzen, gerra urteak, eta itxaropen aldiak, desiratzen duten erreferendumaren atzeratzeak zapuztuta.

Kontzertu ugariz gozatzeko aukera Bonberenean, martxoan

Tolosa » Kokein, Le Fou, Katamalo, Inoren ero ni, Layo Raser, Sociedad Alkolika, Zea Mays eta Zein? taldeak ariko dira.

ERREDAKZIOA

Musikaz beterik dator martxoan Bonberenean, martxoaren 15era arte zortzi talde ariko baitira.

Martxoaren 1ean Kokein eta Le Fou taldeak ariko dira. Hurrengo astean, martxoaren 7an, Katamalo, eta martxoaren 8an Inoren ero ni eta Layo Raser taldeek eskainiko dute zuzenekoak. Eta hurrengo astean, martxoaren 14an Sociedad Alkolika, eta martxoaren 15ean Zea Mays eta Zein? taldeak ariko dira. Kontzertu hauek guztiak 22:30etik aurrera izango dira ikusteko aukera.

Gutunak

Ibarrako Udala, Haur Eskola eta Uzturpe ikastola

Uzturpe Haur Eskola 2001-2002 ikasturtean herrian sortua izan zen; lana -familia uztartzea ahalbidetzeko asmoz egindako eskaerari erantzunez, eta familiei zerbitzu berri bat eskaintzeko, Uzturpe Ikastola Kultur Elkarte eta Ibarrako Udalaren arteko hitzarmenaren ondorioz eratu izan zen.

Sortu zenetik, Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba, Haur Eskolaren kudeatzailea da eta Udalarekin elkarlanean kalitatezko zerbitzua eskaini dugula esan dezakegu, gorritzeko beldurrik gabe.

2008-2009 ikasturtean Ibarrako Udalak Haur Eskola zerbitzua Hezkuntza Sailaren Partzuergoaren esku uzteko asmoa azaldu du. Zergatik aldatu bikain funtzionatzen duen zerbitzu bat?

Hori dela eta, Uzturpe Ikastola kuzendaritzak bere proiektua

aurkeztu zuen udaletxean, Haur Eskolako gurasoei eta, Haysporen bidez, herriko elkartei.

Udalak, berriz, ez du Patzuergoren proiektua azaldu. Nolako zerbitzua eskainiko du? Ibarrako famili guztien beharrak beteko ditu? Zenbat haur jasoko ditu? Zein baldintzatan (ordutegiak, egutegiak) jangela catering bidez izango da?

Udaleko Hezkuntza Batzordea Haur Eskolako langileekin bildu da, baina ez guraso eta herritarrekin. Hori dela eta, Uzturpe (Ikastola eta Haur Eskola) osatzen dugun guraso erabaki hau hartu baino lehen familiarekin eta herritarrekin kontatzea eskatzen dugu.

Gainera, Uzturpe Hezkuntza Proiektua babesteko ibartarron artean sinadura bilketa bultzatzeko erabakia hartu dugu. Horretarako mahaia jarri egongo dira plazan eta Euskal Herria kalean.

Uzturpe Ikastolako Errektore Kontseiluko gurasoak eta Uzturpe Haur Eskolako Eskola Kontseiluko gurasoak. Ibarra

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Golf GT TDI. 110 zaldi. 98 urtekoa. 5.400 euro. Transferentzia eginda. Deitu 943 65 55 67 zenbakira.

LANA

■ **Tabernaria.** Anoetako Itzuli ta-

bernan neska euskalduna behar du. 8 edo 4 ordurako. 635 74 52 01 / 943 69 4313.

BESTERIK

■ **Txakurkumea.** Arratoi txakurkumeak oparitzen ditut. 645 70 68 21.

Z **Zurea da hitza** 

Ibarra, legerik gabeko herria

Gizartea » «Autoak bigarren ilaran aparkatzearekin nazkatuta nago. Ez al dute arazo hau konpontzeko asmorik?».

GORKA

Nazkatuta nago Ibarra egun bat bai eta bestea ere bai gertatzen denekin. Euskal Herria kalean autoekin gertatzen denaz ari naiz noski, lotsagarria da. Kontua da egunero egunero ikus daitezkeela bertan makina bat auto (askotan 5, 6 edo 8 ere izan daitezkeelarik) bigarren ilaran aparkatuta. Horrek esan nahi du errepedean doazen autoentzat oztopo handia izaten dela, eta horretaz gain, bertako bizilagunentzat jasanezina den gertaera bilakatzeko ari dela, ez baita gauzko kontua.

Orain bi urte edo Ibarra Udalak hainbat aldaketa egin zituen (errepedearen zabalera txikitu, oinezkoena handitu, autoak aparkatzeko modua aldatu...) eta azaldu zutenaren arabera bigarren ilaran aparkatzearen arazoa konpondu egingo zen horrela. Konpondu al da? Esaten dutenez ez omen dago dirua udaltzaingo bat jartzeko isunak-eta jartzeko jendeak gaizki aparkatzen dutenerako. Ba, orduan beste irtenbide bat bilatzeko, izan ere, Ibarra sarreran bizi garenok nazkatuta gaude hainbeste urte arazo bera dugula ikusirik. Udalak ez al du arazo hau konpontzeko asmorik? Udalari ez al zaio lotsagarria iruditzen egunero (eta egunero esatean, egunero da) hainbeste auto igarotzen diren errepede batean jendeak behin eta berriz autoa bigarren ilaran aparkatzea?

«Ez dagoelako inor kontrolatzeko gertatzen da»

Ez da, ordea, erru osoa Udalarena. Horretarako ohitura ere hartua dugu, baina askotan gauzak zentzuz pentsatu eta esatea komeni da. Hasteko, Ibarra sarreran, Euskal Herria kalean, bizilagunek aparkatzeko duten tokiaz gain, zama-lanak egiteko hainbat aparkaleku daude. Baina, herrian ez dugu inor hori kontrolatzeko, edo nor aparkatzen du hor. Ondorioz, noski, zama-lanak egin behar dituzten auto, furgoneta eta kamioiek bigarren ilaran utzi beharra izaten dute, eta pentsa zenbat leku hartzen duen furgoneta batek bigarren ilaran

Baina, gauza gogorragoak ere gertatzen dira kale santu horretan: pentsa jendearen errespetua eta edukazioa noraino irits daitekeen, askok eta askok bigarren ilaran uzten baitute autoa tabernara joateko zerbait hartzera. Bai, bai, hau horrela da, auto bat bigarren ilaran oztopatzen duelako berea ezin duela atera eta behin eta berriz bozina joka entzutea zenbat aldiz gertatu zaigu?

Beraz, batetik Udalaren ardura-gabetasuna ikusten dut hemen, ezinezkoa baita hainbeste urtetan jasaten ari garen arazo bat konpontzeko ahalegina ere ez egitea. Benetan lotsagarria iruditzen zait. Eta, bestetik, jendearen errespetu falta. Kontua zer da isuna jarriko ez didatenez edo zer egiteko gai naizela? Mesedez, utzi norbere buruari soilik begiratzeari, jende gehiago bizi baita inguruan, eta ez ibili beti besteen bizitzan oztopoak jartzen. Pentsa guztiok egingo bagenu batzuk egiten dutena.

Ba, horixe, bakoitzak bere alde-tik duela hemen egitekoa.

Hainbat kabina eraso dituzte

Politika » Ezezagunek telefono kabinak eraso dituzte, «herria zapaltzen dutenen propaganda ez delako ongi ikusia».

ERREDAKZIOA

Ezezagunek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARA igorritako komunikatuaren arabera, «aste honetan zehar Tolosaldeko herri gehienetako Telefonikaren kabina gehientsuenei kristalak txikitu dizkiegu, herri hau zapaltzen dutenen propaganda ez delako ongi

ikusia eta Telefonikak zapaltzaileen propagandaren zabalpenean jokatzeko duen papera salatuzko».

Azaldu dutenez, «kabina hauek hauteskunde kanpaina PSOE eta EAJren propaganda zabaltzeko erabiltzen ari dira, euskal independentismoarekin amaitzeko helburuarekin ezker abertzalea egun batean bai eta bestean ere bai erasotzen duten bi alderdien propaganda».

Azkenik Euskal Herriarrei deia luzatzen diete, «bizi dugun salbuespen eta zapalkuntza egoeraren erantzuleei boikotaren bidez erantzutera».



Eraso duten kabina bat. HITZA

S Soka motzean

«Festa egunak eta inauteriak lanerako zailenak izaten dira»

GUSTAVO GARATE

Kale-garbitzailea

NAIARA GARZIA**Gustuko duzun filmaren bat?**

Gladiator.

Abesti bat?

Paulina Rubioren *Ni una sola palabra.*

Gustuko liburu bat?

Memorias de Africa.

Oporretarako leku bat?

Kuba, egunen batean joateko gustatuko litzaidake.

Telebistako programa bat?

Pasapalabra.

Osatu gustuko menua.

Marisko paella bat, txuleta bat eta tarta izoztua. Edateko ura.

Zer topatuko genuke zure logelako hormetan?

Azulejuak. Ez dago beste ezer.

Ibiltzera joateko lekuren bat hemen inguruan?

Plazaola, Santa Kruz, Gorritaran, Basa-Kabi... Asko daude.

Zure lanaren gauzik onena eta txarrena?

Bere garaiak izaten ditu, udazkenean, adibidez, hostoak erortzen dira, eta festa egunak eta inauteriak lanerako zailenak izaten dira, mozkoak ez baitzute lasai lanik egiten uzten. Beste-lan lasaia da.



N. GARZIA




**EZKERRA
OIHUKATU!**

EA
eusko
alkartasuna
herriarenahotsa
euskoalkartasuna.org



Arraunlariak eta Mandazaina izeneko eskulturak aurki daitezke, besteak beste, Hernandezen erakusketan. E. EZEIZA



«Nire eskultura gehienak bizipenetan oinarrituta daude»

TOMAS HERNANDEZ › Artista

Erakusketa › Tomas Hernandez donostiarraren artelanak ikusgai daude egun hauetan Aranburu jauregian.

ESTI EZEIZA

Tolosar askorentzat ezaguna da Tomas Hernandez. Bai bere eskultura eta margoengatik, baina batez ere, Inauterietako kartel iragarlearen egilea delako. 40 urte daramatza donostiarrak, Tolosako herriarentzako lan hau egiten. Aurrera begira ere, «uzten dioten artean» jarraituko duela ere argi dauka berak. Orain, bere eskulturak ikusgai daude Aranburu Jauregian.

Urte askoren baitan egindako eskulturak dira.

Bai, erakusketa lau belaunalditan egindako eskulturekin osatuta dago. Hauetako bakoitzak garai horretako errealitatea erakusten du. Kaleko egoerak dira beraietan isladatzen direnak.

Zertan oinarritzen zara gaiak auzeratzeko garaian?

Asko eta asko bizitzen ari zaren gauzak dira. Bestetan berriz, subkontzientean dituzunak. Ia denak bizipenetan oinarrituta daude, hauetako batzuk nireak dira, eta besteak, ingurukoak. Bihozkadekin egindako eskulturak dira.

Zeintzuk dira erabili dituzun materialak?

Eskultura hauek egiteko aukeratu dituzan materialak merkatuan dauden merkeenak dira. Ekonomikoki artista batek ezin baitu izugarrizko dirutza gastatu lan hauetan. Gainera azken batean, balio duena ideia da, eta ez materiala.

Zer da eskultura hauekin isladatu nahi duzuna?

Batik bat, bizitza bera dena agertu nahi dut. Bizitzako memento ezberdinak erakusten ditut nire artelanetan. Eskultura argiak dira, eta ikustearekin segituan ohartzzen zara erakusten edo isladatzen dutena zer den.



HITZA

Zer da zailena?

Nire ustez eskultura bat egiteko garaian gehien kostatzen dena, buruan duzun ideia hori adieraztea da. Hau da, artelanean bertan islatzea. Nik gizartearekin eta egunerokotasunarekin lotutako gaiak jorratzen ditut, eta hauekin erabateko kontaktuan nagoenez, ez da zaila ideiak izatea.

Tolosarra ez bazara ere, honekin lotura berezia duzu.

Bai, harreman berezia dut Tolosa eta tolosarrekin. Harreman hau 1965ean hasi zen. Antton Eloseggi ezagutzen nuen eta honek Tolosako Ekinbide Etxean egiten zuen lan. Berak proposatu zidan Inauterietako kartela egiten hastearena, eta lan horri ekin nion 1968an. Lan hau tolosarrei eta Tolosako Ekinbide Etxeari eskainia dago. Beraz, hauek esan artean, kartela egiten jarraituko dut, oso gustura egiten baitut.

Kartela egiten 40 urte daramatzazu, oraindik ere erraza al da orijinala izatea?

Bai, nire ustez bai. Tolosako Inauterietako oso ongi ezagutzen ditut eta aspalditik bizi ditut. Horregatik, ez zait zaila egiten kartela egiteko zer baitetan pentsatzea. Sentitu egiten ditut, eta honek asko laguntzen dit.




Hiru hirurak izena du eskultura berezi honek. E. EZEIZA



Gerraren prezioa zein den erakusten du ere artistak. E. E.



Kirolarekin lotutako eskultura ugari daude ikusgai. E. E.



Inkonprentsioren jainua ere nolakoa den erakutsi du. E. E.

txokoa **h**

2 sarrera pare
zozketa

Irabazleak:

- Teresa Etxeberría (Ibarra)
- Karmen Iraeta (Tolosa)

Biarritz
Baleta Jr.

otsailak 23
larunbata, 20:30ean
Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

'Xurdinen Kontzertua' bihar 18:00etan pilotalekuan

Berrobi » Ordebete inguru irauten duen antzerki musikalean, Xurdin ipotx urdinak haurrei dantza batzuk irakatsiko dizkie.

ASIER IMAZ

Berrobiko pilotalekuan *Xurdinen Kontzertua* antzerki musikala eskainiko dute bihar 18:00etan. Xurdinen erakustaldiak ordebete iraupena edukiko du eta, bertara gerturaz diren haurrek dantza batzuk irakatsiko dituzte ipotx urdinaren eskutik.

"*Xurdinen kontzertua* 2 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua dago; nahiz eta, hauen laguntzaile gisa joaten diren helduak ere oso gustura joaten diren. Euskara hutsan eginiko lan honen bideoa ikusteko, helbide bat jarri dute: www.youtube.com/watch?v=i3_FuOwh9AY."



Xurdinek kontzertua eskainiko du bihar 18:00etan Berrobiko frontoian. HITZA

Ibarrako udaletxean Udalbatza osoaren ohiko bilkura asteartean

Politika » 18:00etan hasiko den bilkuran 10 gai bozkatuko dituzte eta EAE-ANVK herritarrei «ager daitezten» eskatu die.

A. IMAZ

Ibarrako alkateak deituta hilaren 26ean, asteartean, Udalbatza osoaren ohiko bilkura egingo dute 18:00etan udaletxean. Bertan, hamar puntuko gai-zerrenda izango dute mahai gainean.

Gai nagusiak

Asteartean 10 puntu bozkatuko dituzte bilkura aretoan. Horietatik lehenbiak ohiko puntuak dira, hau da, azken bilkurako aktak eta Alkate Dekretuak onartzea.

Seigarren puntuan, bilkurara

» GAI-ZERRENDA

10 puntu:

- **Lehena.** Otsailaren 11ko ezohiko bilkuraren aktak onartzea.
- **Bigarrena.** Alkate dekretuak.
- **Hirugarrena.** 11.2.J.U.ren Ondasun Higiezin Desjabetze Espedienteari ekitea.
- **Laugarrena.** Agenda 21 eta Ekin-tza Plana agiria behin betiko onartzea.
- **Bostgarrena.** Izaera pertsonaleko datuen fitxategia sortzea.

agertzen diren politikoei, «Tokiko Gobernu Batzordea sortzea» bozkatuko dute. Hurrengo gaia berriz, «Udalkideen ordainsarien Araubidea» izango da. EAE-ren mozioa ere bozkatuko da bertan.

- **Seigarrena.** Tokiko Gobernu Batzordea sortzea.
- **Zazpigarrena.** Udalkideen ordainsarien Araubidea.
- **Zortzigarrena.** Alkatezaren erabakien berri izatea, Alkateorde, Tokiko Gobernu Batzordeko kide eta eskuordetzei buruz.
- **Bederatzigarrena.** Erakunde Politikoaren ilegalizazioari buruzko mozioa.
- **Hamargarrena.** Galde-eskariak.

ANV-EAren deialdia

Ibarrako EAek asteartean «bilkuran egoteko deia» egin die herritarrei, bertan bozkatuko den ilegalizazioari buruzko mozioari babesa emateko.

Ibarra FSk etxetik kanpo jokatu du gaur

Ibarra » Lauburu KEko hiru taldeek partida garrantzitsuak jokatu dituzte gaur etxean eta etxetik kanpo.

A. IMAZ

Ibarra Areta Futbol taldeak partida garrantzitsuak jokatu du gaur 17:00etan Irurtzungo (Nafarroa) Atakondoa kiroldegian Xota B taldearen aurka.

Bi taldeentzat garrantzi handiko hiru puntuak egongo dira jokotan, nahiz eta bi taldeen baldintzak ezberdinak izan. Ibartarrek laugarren postuan jarraitu nahi dute eta horretarako ezinbestekoa da Irurtzungo punturen batekin itzulzea. Nafarren kasuan, sailkapenaren zuloak irteera izango dute helburu eta ondorioz partida gogorra izango dela azaldu dute Ibarako taldearen arduradunek.

Lehen itzuliko partidari, Bela-

bietan hain zuzen ere, Xotak puntu bat urratzea lortu zuen. Oraingoan ordea, etxean jokaturiko partidari ez bezala, ibartarrek talde guztia prest izango dute lehiarako. Horretaz gain, azken asteburuan izandako atsedendialdiak on egin diela adierazi du Jose Manuel To-biasek, prentsa arduradunak.

Baikor egoteko datuen artean, Ibarra FSk bigarren itzulian partidari ez duela galdu esan behar da. Txanponaren beste aldean, azken hiru urteetan Irurtzunen egindako lana aurkitzen da, izan ere ibartarrek epe horretan ez dute puntu bakar bat ere lortu Xotaren etxean.

Jubenilak ere gaur

Nazional mailako jubenilek Getxon (Gipuzkoa) jokatu dute 16:00etan Artaromo taldearen aurka.

Probintzia mailako jubenilek berriz, Uzturpe Ikastolan jokatu dute 13:00etan.

Zurea da hitza info

Animo, oraingoan, hirugarrengoa bai!

FAUSTO (IBARRA)

Ibarrako San Inazio auzoan hirugarren aldiz erreka ondoko bidea altxa egin dute. Hirugarren aldiz konpoketa lanak egiten ari dira. Oraingoan oinezkoentzat eurria edo izotza egitean arriskua sortzen zelako omen da. Horrela ez denik

ez dut esango, baina kontua hori ez da. Zergatik ez ziren jabetu horretaz lehen edo bigarren lanak egin altxa egin dute. Hirugarren aldiz lan horien ardura duenari, gure diruz ordaindutako lanak, animoak eman nahi dizkiot. Animo neska edo mutil, hirugarrengoa bai; lortuko duk/n eta.



Ibarrako San Inazio auzoan oinezko bidean lanak. A. IMAZ

Hilberriak

POLENTZI GEZALA

Lezoko Udalak
Polentzi Gezalari



LEZO
2008ko otsailaren
23a

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta

Mahala baserrira - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Abel Barriola binakako ligaxkako azken partida jokatu du bihar. N. GARZIA

Abel Barriola: «Pilotak asko eman dit eta asko ikasi dut berarekin urte hauetan»

Pilota » 10 urte egin ditu Barriolak profesioletan jokatzeko hasi zela, binakakoaren ligaxka amaitzear dagoenean.

NAIARA GARZIA

Atzo hamar urte egin zituen Abel Barriola profesioletan jokatzeko hasi zela. 30 urte beteko ditu aurtur Leitzako pilotariak eta hementik aurrera pilotari beterranotzat joko dutela dio. «Urtetan aurrera zoazenean esperientzia handikopilotarian bilakatzen zara eta suposatzen da kondizio fisikoak jaisten hasten zaizkizula, eta esperientziak pisua hartzen duela. Aurten 30 urte eginen ditut eta kirolari bantentzako, bere karrera 36 urtera arte edo izaten da».

Asteburu honetan ere, bihar, hain zuten ere, binakako ligaxkako azken partida jokatu du. «Txapelketa honetan 3 belaunaldi

gaude: Bengoetxea, Mendizabal eta Olazabal, hauek gazteenak dira, 28-30 artean gaude gainerakoak eta hortik gora, beste belaunaldi bat dago: Olaizola I.a, Beloki...

Barriolak 10 urte hauen balantzea egin du. «Balantze oso positiboa egiten dut. Pilotak asko eman dit, eta asko ikasi dut berarekin urte hauetan. Etorkezinean zer gertatuko den ez dakit, baina nire bizitzako etapa oso polita izan da. Niretzako pilota nire afizioa da, honetatik bizi naizen arren, eta seguru profesionalki uzten dudanean ere, pilota goxoeekin eta lagunekin pikeak botako ditudala».

Binakakoa

Asteburu honetan binakako txapelketaren 8. jardunaldia jokatu du. Zentzuzko erabakiorrak izan dira asteburu honetako partidak, beste zenbait, ordea, jada finalurrekoetarako sailkatuta daude. Barriola eta Gonzalez

duela asteburu pare bat jada sailkatu egin ziren, halere, asteburuko gogor saiatu dira eta partida guztiak irabazi dituzte. Titin III.a eta Laskurain ere jada sailkatu dira (7 partidetatik 5 irabazi dituzte). Olaizola II.a eta Zearra, Bengoetxea VI.a eta Ruiz, Koka eta Begino eta Olaizola I.a eta Beloki, 4 bikote hauetatik 2 sailkatuko dira asteburu honetan. Aldiz, Xalac eta Pascualek, alde batetik eta Eugik eta Lasa III.ak, bestetik, ez dutesailkatzeko inolako aukerarik, baina txapelketako azken partidak jokatu dituzte asteburuan.

Finalurrekoetako ligaxka martxoaren 2an hasiko da, eta 3 asteburutan zehar sailkatutako 4 bikoteak ligaxka jokatu du. Finala martxoaren 30ean izanen da.

Bengoetxeak, azkeneko partidatzen min hartu ondoren, ez du asteburu honetan jokatu du. Pilotariak azaldu duenez, finalurrekoetarako sailkatuz gero hurrengo partida jokatzeko prest izanen da.

Agenda 21en inguruko bilera, asteartean

Gizartea » Kirola, euskara, hezkuntza, kultura eta gizarte zerbitzuak izanen dira, besteak beste, aztertuko dituzten gaiak.

N. GARZIA

Datorren asteartean, 19:00etan, Mendialdeko Agenda 21en inguruko bigarren bilera eginen dute herriko udaletxean.

Terra-Prometeako lan taldeak (Zorione Aierbe, Gurutze Santxo eta Itziar Montejo) azaldu duenez, «gizarte arloko gaiak aztertuko ditugu. Batik bat izanen dira kirola, euskara, hezkuntza, kultura, gizarte zerbitzuak, osasuna eta ekonomia».

Aurreko bilera

Lehenengo bilera urtarrilaren 15ean egin zuten, eta jende askok parte hartu zuela adierazi dute. «30 bat pertsona etorri ziren eta alkatea ere han zen, baita zinegotziren bat ere». Gainera bertaratu zen jendeak asko parte hartu zuela azaldu dute. «Dinamika aldatu egin genuen. Bakoitzari aurrea arlo bakoitzean zonaldeko sendo-

tasunen eta ahultasunen inguruan pentsatzeko eskatu genion. Lehenengo gogoeta pertsonal horren ondoren, komunean ipini genituen gai guztiak eta 2 orduz egon ginen». Bilera honetan, besteak beste, udaletxean aztertu zituzten gaiak hauen izan ziren: ingurumena, hirigintza, mugikortasuna eta basoa.

Asteartean, 19:00etan

Astearteko bilerak ere jendearen parte-hartzea izanen du helburu. «Astearterako beste dinamika bat antolatuko dugu», diote Terra-Prometea lan taldeak, «ezberdina, baina jendearen parte-hartzea izanen du helburu, jendearen iritzia jasotzeko, eta beraiek parte hartzeko. Ez dugu guk soilik hitz egin nahi».

Bilera hauek, Mendialdeko Agenda 21 proiektuaren barruan dauden 8 herrietako herritarrentzat (Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Lekunberri eta Leitzza) errazagoa izan zedin, Leitzza eta Lekunberri egin dituzte. «Lekunberri eta Leitzza foro bat izan ordez, bi tokitan egitea adostu genuen jendeari gauzak erreteko».



Finalurrekoetarako berotzen

LEITZA » Herenegun iluntzean herriko zinean bertso saioa egin zuten. Oso jende gutxi bildu zen arren, bertsolariak hagitx gustura aritu ziren, joan zirenen txaloak ere jaso zituzten. Miel Mari Elosegik marxoaren 1ean parte hartuko du Nafarroako Bertsolari Txapelketako Berako hirugarren finalurrekoetan, eta herenegungoa, beroketa saioa izan zen. N. GARZIA

DISEINATZAILEA

Donostia aldeko publizitate eta marketin enpresa batek diseinatzaile bat behar du.

Erreferentzia: 2008 IR-DP

Eskatzen da:

- Diseinuan esperientzia izatea.
- Diseinu programak menperatzea (Freehand, Photoshop, Quark...).
- Publizitate produktuen ekoizpenean esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Eskaintzen da:

- Urte bateko kontratua (luzatzeko aukera).
- Egun erdiko kontratua (goizez edo arratsaldez aukeran).
- Lanean berehala hastea.

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, martxoaren 9a baino lehen.

» BINAKAKO TXAPELKETA

8. jardunaldia

■ **Atzo**, Titin III.a eta Laskurain, Olaizola I.a eta Otxandorenaren aurka (honek Beloki ordezkatzen du).

■ **Gaur, 16:45etan**, Olaizola II.a eta Mendizabal II.a, Xala eta Pascualen aurka, Labriten.

■ **Bihar, 17:00etan**, Gonzalez eta Barriola, Leiza eta Patxi Ruizen aurka (Bengoetxea VI.a ordezkatuko du), Atano III.a Pilotalekuan.

■ **Etz, 16:30ean**, Koka eta Begino, Olazabal eta Lasa III.a aurka, Beotibarren.

Sailkapena (7 jardunaldiak)

■ **1**, Barriola eta Gonzalez, 7 puntuarekin.

■ **2**, Titin III.a eta Laskurain, 5 puntuarekin (sailkatuta dauden arren, atzo gauean jokatu zuten).

■ **3**, Olaizola II.a eta Zearra, 4 puntuarekin.

■ **4**, Bengoetxea VI.a eta Ruiz, 4 puntuarekin.

■ **5**, Koka eta Begino, 3 puntuarekin.

■ **6**, Olaizola I.a eta Beloki (Otxandorenak ordezkatzen du), 3 puntuarekin. Hauek atzo gauean jokatu zuten haien 8. norgehiagoka, finalurrekoetarako ligaxkako azkenekoak.

■ **7**, Xala eta Pascual, 2 puntuarekin.

■ **8**, Olazabal eta Lasa III.a, puntuarik gabe.



14°
10°

GOIZA ESTALIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 12°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan!

Araitz (Altxo).

Gaur 2 urte. Muxu pilo bat etxekoan partetik.



Urte askoan!

Iosu Azkue Arsuaga (Irura).

Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Amalur Beloki Tobar (Alegia).

Gaur 3 urte. Garazi eta etxekoan partetik.



Urte askoan!

Zorionak aita. Zorionak eta 1000 muxu etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Udaberri dantzari taldea 19:00etan Bonberenean eta Oxabi euskal erronomia taldea 22:30ean.
■ **Tolosa.** Ahoz aho jaialdia: 12:00etan Kultur etxean Jose Mari Carrere euskaraz, 17:00etan Sanblasipiko auzo elkarteana Ana Escalapez eta Jose Carbajal *El Sabale-ro*, 18:30ean San Esteban auzo elkarteana Fabiana Costa eta Bertrand N'Zoutani, 20:00etan Amaro auzo elkarteana.
■ **Tolosa.** Biarritz baleta juniorrek *Gari beltza* dantza ikuskizuna aurkeztuko du Leidorren 20:30ean.

Musika

■ **Zizurkil.** VI. Blues Musikaren Jaialdia: The Reverendos taldea Atxulondo tabernan 23:00etan, Los reyes del KO Egarrri tabernan 00:15ean eta Special 20 taldea Aurrera tabernan 01:30ean. Sarre-ara doan.

Zinema

■ **Tolosa.** Haurrentzako zinea euskaraz: *Piccolo eta Saxo* filma izango da ikusgai 17:00etan Leidor aretoan.
■ **Leitza.** Patrice Laconte zuzendaria frantsesaren *Mi mejor amigo* filma emango dute bihar 19:30ean.
■ **Tolosa.** *Los crimenes de Oxford* fil-

ma izango da ikusgai Leidor aretoan: gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 20:30ean.
■ **Villabona.** Gurea zinemaren bi filma izango dira asteburuan. *Interview*, gaur (22:30), bihar (19:30) eta etzi (21:30). *Asterix en los Juegos Olimpicos*, gaur (19:30) eta bihar (17:00).

Erakusketak

■ **Tolosa.** Txetxo Gaztañagaren artista tolosarraren marrazki eta margolanak izango dira ikusgai Aranburu Jauregian. Inaugurazioa gaur, 20:15ean.

Deialdiak

■ **Zizurkil.** Gutun Lehiaketa naturari buruz 6 urtetik aurrera. Bi lan aurkez daitezke, gehienez bi orrikoak. Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateko bulegora eraman behar dira, Zizurkilgo Muñoa kaleko 36 zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

ILEAPAINDEGIA

X

LOS

pe

LOS

Eguerdietan ZABALIK

xlospelosvillabona@hotmail.com

Ernio-bea 8, behea Villabona
Tel.: 943 696 845

Foto
Depilazioa

Azkenik bukatu egin da ilearen arazoa



Hanka osoak

250€

Martxoaren 1-etik 15-era

Shuyana Edergintza

Eskola-pioetako Lorategiak, nº 13, 1º A
20.400-Tolosa. Tel. 943 67 54 89

